

**2008KO URTARRILAREN 22AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hogeita bía

**HILABETEA:** Urtarrila

**URTEA:** Bi mila eta zortzi

**HASIERAKO ORDUA:** Eguerdiko ordu bata eta erdia

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Bost (5)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Jon Kortaberria Lasa

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2007ko abenduaren 11ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**2.- OBRAK ESLEITZEA:**

- Arriarango Intxaurpe Elkartea handitzeko obrak esleitzea.

Ezagutzera eman da 2008ko urtarrilaren 22ko kontratazio-mahaiaren proposamena:

**“AURREKARIAK**

I.- 2007ko azaroaren 13ko Gobernu Batzordeak deialdi publikoa egitea erabaki zuen, Arriarango Intxaurpe Elkartearen hazkuntza obrak kontratatzeko. 333.363,25 €ko lizitazio prezioa eta 6 hilabeteko egikaritze epea.

II.- 2007ko abenduaren 4ko GAO n argitaratu zen deialdia eta eskaintzak aurkezteko epean, ondorengoak aurkeztu ziren:

- CONSTRUCCIONES KOLDO KEREJETA (314.172,79 € eta egikaritze epea 6 hilabetekoa).

- CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE, S.L. (323.436,01 € eta egikaritze epea 6 hilabetekoa)
- CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A. (332.365,51 € eta 6 egikaritze epea 6 hilabetekoa)

III. 2008ko urtarrilaren 16ko datarekin, udal-aparejadoreak honekin batera doan txostena eman du eta ondorengo puntuazioa ematea proposatu du:

Contratistas	Importe Obra	Baja	Oferta	PUNTUACIONES POR					TOTAL
				Estudio	Obra	Plazo	Personal	Maquinaria	
LICITACION	<b>333.363,25</b>	3,01%	70	10	10	10	5	5	100
FCO AYERBE SL	<b>323.436,01</b>	2,98%	63,05	1,00		8	2	2	76,05
KOLDO KEREJETA	<b>314.172,79</b>	5,76%	70		4	4	0	2	80,00
<b>CNES ITURRIOZ SA</b>	<b>332.365,51</b>	<b>0,30%</b>	<b>56,36</b>	<b>9,00</b>		<b>10</b>	<b>5</b>	<b>4</b>	<b>84,36</b>

Fernando Boada jaunak adierazi du ez dagoela ados kontratazioarekin, bere garaian ere proiektuaren aurka azaldu zirelako.

Horren ondorioz, Kontratazio-mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio, Fernando Boadaren aurkako botoarekin:

**Lehenik.** Arriarango Intxaurpe Elkartea handitzeko obrak, CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.ri esleitzea, HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMABI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA BERROGEITA HAMAIIKA ZENTIMOTan (332.365,51 €), BEZ barne, baldintza pleru eta berak egindako eskaintzaren arabera. Egikaritze epea sei hilabetekoa izango da zuinketa akta egiten denetik kontaktzen hasita.

**Bigarren.** Hamabost eguneko epean esleipen-jakinazpena egiten zaionetik kontaktzen hasita, lizitatzailleak 13.294,62 €ko behin betiko fidantza aurkeztuko du, jarraian kontratu administratiboa sinatzeko.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ, EA, PP, EB)

Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

- Igartzako Jauregia Kontsolidatzeko obrak esleitzea (lehen fasea)

Ezagutzera eman da, 2008ko urtarrilaren 22ko Kontratazio-mahaiaren proposamena:

“Gobernu Batzordeak 2007ko azaroaren 13an, **”Igartzako jauregiaren zimenduak, ormak, egurrezko egitura eta estaldura kontsolidatzeko (lehenengo fasea)”** lehiaketa bidez kontratatzea erabaki zuen, horretarako baldintza plegua onartuz.

Lehiaketaren deialdia, 2007ko abenduaren 5ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epea 2007ko abenduaren 18an amaitu zen. Epe horretan, “UTE TEUSA y RESTAURACIONES AZKOITIA, GIRES, S.A., BIOETXE, GOITU ERAIKUNTZAK eta UTE URAZCA y ZUT enpresak aurkeztu dituzte eskaintzak.

Lizitazio prezioa honako hau da: 1.194.126,24 €, BEZ barne. Egikaritze epea berriz: 12 hilabete.

Eskaintza ekonomikoari buruzko kartazala ireki ondoren, lizitatuzaileek aurkeztutako proposamenak hauek dira:

LIZITATZAILEAK	Oinarrizko eskaintza. Epea	Eskaintza alternatiboa. Epea
UTE, Teusa y Restauraciones Azkoitia	1.194.126,24. 12 hilabete	
GIRES, S.A.	1.157.110,01 6 hilabete	1.096.685,45 6 hilabete
BIOETXE	1.055.163,10 10 hilabete	996.669,09 11 hilabete
GOITU ERAIKUNTZAK	1.088.755,68 11hilabete	933.222,47 11 hilabete
UTE, Urazca Construcciones, S.A. y Zut	1.161.886,82 12 hilabete	1.161.886,82 10 hilabete

1 eta 2 kartazaletan aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, egiaztatu da UTE, Urazca Construcciones eta Zut, lizitatuzaileak ez duela betetzen Baldintza Pleguaren 10. f) artikulua dioena, hau da, “1900. urtea baino lehenagoko zurezko egiturak dituzten eraikuntzetan egindako zaharberrikuntzen azken bost urteetan egindako lanen zerrenda”. Beraz, baldintza hau ezinbestekoa izanik, lizitatuzaile hau lizitaziotik kanpo gelditu da.

Beste proposamenak aztertu dira, Baldintza Pleguaren 15. artikuluan ezarritako irizpide adjudikaziodunaren arabera eta Alberto Zulueta proiektua idatzi duen arkitektoak 2008ko urtarrilaren 8an emandako txostena, kontuan izanik, balorazio hau eman da:

Lizitatuzaileak	Obraren azterketa	Prezioa	Epeak	Makinaria Baliabideak	Pertsonala	GUZTIRA
-----------------	-------------------	---------	-------	-----------------------	------------	---------

	(0-50)	(0-25)	(0-15)	(0-5)	(0-5)	
<b>BIOETXE</b>						
Oinarrizkoa	40	20,10	10	5	5	80,10
Alternatiboa	40	25	7	5	5	82
<b>GOITU</b>						
Oinarrizkoa	40	17,29	7	5	5	74,29
Alternatiboa	-	Baja temeraria	-	-	-	-
<b>TEUSA- AZKOITIA</b>						
Oinarrizkoa	40	8,46	3	5	5	61,46
Alternatiboa	-	-	-	-	-	-
<b>GUIRES</b>						
Oinarrizkoa	10	11,56	0	5	5	31,56
Alternatiboa	10	16,62	0	5	5	36,62

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak egikaritze organoari, hau da, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** "Igartzako jauregiaren zimenduak, ormak, egurrezko egitura eta estaldura kontsolidatzeko (lehenengo fasea)", **CONSTRUCCIONES BIOETXE, S.L.** (eskaintza alternatiboa) esleitzea, baldintza plegu eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera, **BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA BEDERATZI ZENTIMO (996.669,09 €)Ko prezioan, BEZ barne.** Egikaritze epea hamaika hilabetekoa izango da, zuinketa akta egiten den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Zuinketa akta, kontratu administratiboa sinatzen denetik zazpi eguneko epean egingo da.

**Bigarren.** Esleipena jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean, 39.866,76 €ko behin betiko fidantza aurkeztuko da."

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

### **3.- INFORMAZIOA.** Hainbat informazio

Alkate jaunak ondorengo informazioa eman du:

#### Pertsonala

2008ko urtarrilaren 21ean egindako gobernazio batzordean, agente lehena, agente, gazteri teknikaria eta euskara eta kulturako koordinatzaile lanpostuak hornitzeko hautaketa-prozesuko oinarriak aurkeztu ziren, udal taldeak aztertu ahal izateko. Aldi berean, idazkari eta kontuhartzaitza lanpostuen oinarri bereziak onartzeko proposamena egin zen.

#### Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa

Ezagutzera eman da 2008ko urtarrilaren 23an, eguerdiko 13,00etan, batzar aretoan, CONSTRUCCIONES AMENABAREK Dulce M<sup>a</sup> Loinatz, 10, 11 eta 12an eraiki behar dituen babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa egingo dela. 40 etxebizitza, beraien garaje eta trastelekuekin zozketatuko dira. Oraindik obrak ez dira hasi Iberdrolaren postea ez delako tokiz aldatu.

#### Goierriako herri teknologikoa

Alkateak adierazi du Bilbon egon dela aipatutako gaia aztertzen eta ez dela hain erraza gauzatzeko, egin nahi den eremuan Iberdrolarekin topo egiten delako eta horrek arazoak sortzen ditu.

Murumendi ikastetxean mantentze eta zaintza funtzioak beteko dituen pertsona kontratatzea.

Alkateak adierazi du gaien honen inguruan bilerak izan dituela eta badaudela lan batzuk, hala nola, telefonoarena eta fotokopiak egitearena, pertsona horri egitea tokatzen ez zaizkionak. Ordutegia ere aztertzen ari direla dio, baina zerbitzu azkarra eman nahi bada, bi funtzio horiek kendu egin beharko lirakeela esan du. Bigarren jarduerara pasatzeko udal langileak daudenez, ez litzateke oso arduratsua izango kanpoko jendea kontratatzea.

Bukatzeko komentatu du, aurkako iritzirik ez balego, ikastetxearekin negoziatzen jarraituko duela.

Jon Kortaberria jaunak esan du, bere taldekoekin hitz egingo duela.

#### Menpekotasun Legea

Ezagutzera eman da, gizarte-ongizate bulegoen aldamenean, hain zuzen ere, egun kale hezitzaileentzako eta NA izapidetzeko erabiltzen den tokia egokitu egingo dela, menpekotasun legeari buruzko informazioa eman eta behar diren izapideak egiteko.

## GKE

Hil honetan egingo da deialdia GKEentzat dirulaguntzak emateko.

## Bide-hezkuntza

Alkateak esan du bide-hezkuntza ikastetxeetan martxan jarri dela, kontratatu den enpresa batekin, udaltzainekin egiteko aukerarik ez zegoelako.

## TAO

Trafiko eta aparkamenduaren ordenamendua berriro ere gobernazio batzordean tratatu da, aztertu beharreko gai bat delako.

## ORDAINSARIAK

Alkateak komentatu du zinegotzien ordainsariak errenta aitopenenaren kitapenari lotuta daudela eta bere taldea horren alde dagoela. Gauza bera diote, EB eta PPko ordezkariak. EA eta PSE-EE/PSOeko zinegotziek erantzun bat ematekotan gelditu dira.

## UDALBATZA OSOA

2008ko urtarrilaren 31n izango da hurrengo Udalbatza Osoa

## **4.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean Jon Kortaberria jaunak eskatu du Igartetxe ondoan dagoen zebra bidea gainbegiratzea oso zabala delako.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, eguerdiko ordu-biak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.